


THERMLAB

CIC
energi
GUNE

MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

ESR ResearchBench View - Connected (AR752ac 160x178 4000x 14)



THERMLAB

ThermLab jauzi kualitatibo eta diferentziala suposatzen du, biltegitratze termikoarekin, kudeaketa termikoarekin eta eraginkortasun energetikoarekin zerikusia duten teknologiak industrian integratuz; teknologia horiek interesgarriak dira negozio aukera berriak bilatzen dituzten enpresentzat.

ThermLab ekimena industriari kudeaketa termiko aurreratuko soluzioak eskaintzeko helburuarekin sortu zen, produktu trinkoagoak eta indartsuagoak garatuz, non ohiko hozte-sistemak garestiegiak diren eta optimizatu daitezkeen. Batzuetan, hoztea ez da nahikoa izaten, eta bizitza erabilgarria edo prestazio teknikoak murrizten dira. Aldi berean, ThermLabek hondar-beroaren soberakina aprobetxatzeko atea irekitzen du, eta hori energia-iturri garrantzitsu gisa kudea daiteke, eskariaren arabera erabil dadin, enpresen energia-eraginkortasunaren helburuekin bat eginez.

ThermLab azterketa-, garapen- eta saiakuntza-azpiegitura bat da, CIC energiGUNEen kokatua, ezagutza disruptiboa eta goi-teknologiako tresnak uztartzeko aukera ematen duena. Horrela, enpresen produktuetan eta azpisistemetan kudeaketa termikorako teknologia aurreratuak garatzeko eta baliozkotzeko aukera ematen da, industrialki garrantzitsua den eskalan egindako saiakuntzen bidez, merkaturatu daitezkeen garapenetan behin betiko integratu aurretik.

ZER EGIN DEZAKEGU?



- Produktuen eta prozesuen kudeaketa termikoa hobetzea eta optimizatzea, modelizazio-teknika zehatzen bidez, eta proba-errore kostuak murriztea.
- Industria-produktu eta -prozesuetan anomalia termikoak hautematea.
- Ad hoc kudeaketa termikoko teknologiak garatzea energia-kontsumo handiko produktu eta prozesuetarako.

ZERBITZUAK

NORENTZAT?



Potentzia-
elektronika



Automobilgintza



Ekipo elektrikoko
ondasunak



Berriztagarriak

INDUSTRIAK

ESKAITZEN DUGU



**PORTAERA TERMIKOAREN
NEURKETA ETA
KARAKTERIZAZIOA**



**KUDEAKETA TERMIKOKO
SISTEMAK TESTATZEA ETA
BALIOZKOTZEA**



**KUDEAKETA TERMIKOKO
SOLUZIOEN ESKURA
GILTZA GARATZEA**

SOLUZIOAK

NOLA?

Kalorimetria (DSC, TGA, STA, PVT)	Laser Flash, Hot disk	Termografia	Errealimetroa, dentsimetroa	Mikrofluidiko bankua	Klima- kamera
Bero-neurri espezifikoak lortzea, hainbat baldintzatan	Difusibitatea eta eroankortasun termikoa lortzea	Temperaturaren patroi zehatzak lortzea	Biskositate- eta dentsitate-neurriak lortzea	Mikrofluidikoan oinarritutako kudeaketa termikoko sistemak garatzeko ekipamendua	Kanpoko funtzionamendu- baldintzak erreproduzitzeko ekipamendua

EKIPOA ETA TEKNIKAK

CIC **energi** GUNE

MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

Parque Tecnológico de Álava
c/Albert Einstein 48
01510 Vitoria-Gasteiz · (Álava)
SPAIN

(34) 945 29 71 08

cicenergigune.com



Making sustainability real